

Zer da Itsasontzi Jokoa?

Tresna berri bat da, **Interneten dokumentuak sinatzen eta zerbitzuetan identifikatzen uzten dizuna**, modu erraz eta seguru batean:



- Ez duzu ezer instalatu behar zure ordenagailuan, tabletan edo telefonoan.
- Ez duzu behar txartel-irakurgailurik.
- Sinadurak lege-balio erabatekoa du.
- Itsasontzi Jokoa posta elektronikoz bidaliko dizugu, eta pasahitza, sms baten bidez.

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Zertarako balio du?

Itsasontzi Jokoz **tramite** asko egin ditzakezu Interneten; esate baterako:

- Kontsumobidera erreklamazio bat bidali
- Zure osasun-karpeta kontsultatu
- Kontziliaziorako laguntzak eskatu eta berritu
- Etxebiden zure informazioa eguneratu
- eta askoz gehiago.

Nola erabiltzen da?

Itsasontzi Jokoa 16 letra ditu, eta horietako bakoitzak 0tik 9ra arteko zenbaki bat izango du. Identifikatzeko edo sinatzeko, pantailak honako hauek sartzeko eskatuko dizu:



- Erreferentzia-zenbakia.
- Pasahitza.
- Pantailak erakusten dizkizun 3 letrei dagozkien zenbakiak.

Nola lortu Itsasontzi Jokoa?

Itsasontzi Jokorik ez baduzu, **Kontsumobideko eta Zuzenean bulegoetan eska dezakezu**, edo KZguneetan.

Adi! Itsasontzi Jokoa jaso eta gero, aktibatu egin behar duzu. Oso erraza da; minutu pare batean egin daiteke, hemen: www.izenpe.com/aktibatzea.

Zure pasahitza aldatu, eta erraz oroitzeko bat hautatu; lehen sinadura-saioa egin prozesua osatzeko, harpidetza-kontratua eta erabilera-baldintzak sinatuz.

Gainera, **Izenperen webgunean** (www.izenpe.com), laguntza aurkituko duzu: sarrien egiten diren galderak, nola aldatu pasahitza eta datuak...